



## 3. HONDAKINAK

<b>Ekipoa</b>	<b>Ebaketa-likidoa iragazteko ekipo mugikorra</b>
<b>Kodea</b>	C-3000
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hondakin arriskutsu bat (ebaketa-likidoa) sortzea murrizten du eta ebaketa-jariakinen bizitza luzatzen du.</li> <li>- Ebaketa-likidoen eta/edo -jariakinen kontsumoa murrizten du.</li> </ul>
<b>Honetan datza:</b>	<p>Konplexutasun-maila desberdinetako konposizioa duten likidoak dira ebaketa-jariakinak. Mekanizazio-operazio bateko pieza/erreminta/txirbil sistemari gehitzen zaizkio, sortutako beroa lubrifikatzeko eta ezabatzeko. Ebaketa-likidoa jariakin urtsu bat da, olio mineral sintetikoak edo erdisintetikoak dituena. Ebaketa-olioak, berriz, jariakin oliotsuak dira.</p> <p>Jariakin horiek mintz baten bidez bereizten dira, eta teknika horrek mintzaren bi aldeetara presio ezberdina eginez funtzionatzen du. Substantzia disolbagarriak eta molekula tamainako partikulek poroak zeharkatzen dituzte. Partikula esekiak, partikula koloidalak, bakterioak, birusak eta makromolekulak, berriz, mintzean atxikita geratzen dira. Mikroiragazketaren bidez, 0,1 µm-tik gorako partikulak atxikitzen dira (1–3 bareko presioarekin). Hainbat materialez egindako mintzak erabil daitezke: beira-zuntza, polikarbonatoak, PVDF (polibinilideno fluordunak), zelulosa-azetatoak, poliamidak... Iragazkia mekanikoki garbitu ohi da fluxuaren alderantzizko norabidea duen aire-fluxu batekin.</p> <p>Ekipo trinko mugikor bat da, eta 0,5 mikratik gorako partikula solidoak atxikitzen ditu, bai eta olioien, ebaketa-likidoen eta jariakin industrialen hezetasuna ere. Ekipoak olio hartzen du zirkuituko presio-puntu batetik. Gero, andelaren puntu batera itzultzen du mikroiragazita, eta tratatu beharreko olio zirkulazioan jartzen du berriz ere.</p> <p>Andeletan «giltzurrun» moduan aplikatzen da eta zirkuitu, ponpa, balbula eta eragingailu guztiak garbi uzten ditu.</p> <p>Ekipoa konektatuta dagoen makinak lanean jarraitzen du (hau da, funtzionamendu autonomoa du gainerako makinekiko eta instalazioekiko).</p>
<b>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</b>	<p>Honako sektore hauetan aplikatu daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elementu metalikoak fabrikatzeko industriak, makineriak eta ekipoak izan ezik (NACE 25).</li> <li>- Makineria eta ekipo mekanikoak egiteko industriak (NACE 28).</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"><li>- Automobilgintza (NACE 29).</li><li>- Metalaren industria (NACE 24).</li></ul>
--	---